

GURE ENPRESAREN BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresak bigarren eskuko arropa berria, merkea eta pertsonalizatua eskaintzen du. Etekinen zati bat enpresarentzat izango da, eta beste zati bat ONG-ei emango diegu.



Bigarren eskuko arropa salduko dugu, eta bezeroei bigarren eskuko arropa nahi bezala pertsonalizatzeko aukera emango diegu. Horretarako, denda fisikora etorri edo gure negozioaren webgunetik idatzi ahal izango digute pertsonalizatzeko eskaerak egiteko. Webgunean pertsonalizatzeko baldintzei buruzko atal espezifiko bat izango dugu. Eska ditzaketen pertsonalizazioak honako hauek izan daitezke:

- Koloreak: Geure bezeroek arropa kolore jakin batean eskatzeko eskubidea izango dute, aukera infinituak eskainiz. Horrela, nahi dutenean aldatu egingo dezakete haien armairua, nahi duten arropa salgai ez egotearen beldurra eduki gabe.
- Neurriak: Nahiz eta gu dendetan salduko dugun arropa neurri zehatz batzuk eduki, pertsonalizatzeko aukera izanez, haiek ere neurri zehatzak eskatzeko eskubidea edukiko dute.
- Diseinuak: Pertsonalizazioak aukera asko ematen ditu; lehen aipatu dugun bezala, neurriak eta koloreak bakoitzaren nahien arabera eska daitezkeela. Baina horretaz gain, diseinu pertsonalizatuak ere eskainiko ditugu.
- Aholkularitza: Pertsonalizazioaz gain, dohainezko aholkularitza eskainiko dugu behar duen jendeari; Ez badakite zer edo nola jantzi, guk laguntza emango diegu; zerbait berria nahi badute, guk eskainiko diegu...

Lehiakideengandik bereizten gaituen ezaugarri bat prezioa da, gure helburua ahalik eta prezio baxuenak ezartzea da, ahalik eta jende gehiena erosteko gaitasuna izateko, baina nahiz eta gure denda merkea izan orokorrean, pertsonalizatzea zergaren bat edukiko du; ehuna eta denbora gehiago eskaini behar baitzaio, arropa normalarekin konparatua. Bestalde, on-line erostean ere zergaren bat edukiko du arropa, baina erosketa 20€ edo gehiago balio badu, gastu hauek ez dira aplikatuko.

Bestalde, gure irabazien zati bat ONG batzuei emango diegu. Batez ere, ACTECO elkartearekin batera lan egingo dugu, arropa egiteko produktuak eskaintzen baitizkigu, eta guk etekinen eta arropen kopuru bat ematen diogu trukean. Horrela, ONGei lagundu egingo diegu eta haien helburu soziala aldarrikatu.



Produktua ACTECOK emango digu, bigarren eskuko arropa emanez.

Baina horrekin ez da nahikoa, beraz, materiala ere erosiko dugu gure aldetik, adibidez, oihala, hariak, orratzak, josteko makinak, etab.

Bestalde, gure bezeroek guri arropa dohaintzan emateko eskubidea izango dute. Dendaren sarreran toki bat edukiko dute haien arropa edota ehunak uzteko, guk hauekin arropa berria eta erabilgarria egiteko.



Horrela, alde batetik diru-sarrera txikiak dituzten familiei lagunduko diegu, arropa merkea eta kalitate onakoa ekainiz; eta bestalde, behar gehienak dituzten pertsonen lagunduko diegu, helburu sozial hori betez.